

**1213. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRÉTUA**

Xedea

Gas Naturalaren hornidura 2018-2019 eperako lizitatzeko asmoa esparru-akordioaren prozedura bidez.

Aurrekariak

Lehenengoa: Espedientean erlazionatuta dagozan udal ondasunetan gas naturala hornitzeko beharrezana dago. Erregaiaren helburua, ur berorako eta berogailuetarako erregaiaren beharrezana asetzea da.

Bigarrena: 2017ko otsailaren 23an izandako Osoko Bilkurak, Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazino zentralera atxikitze erabagia hartu eban, eta kontratazino bakoetarako atxikipena erabagiteko ahalmena alkatearengan delegatzea.

Hirugarrena: 2017ko urriaren 16an, udal kontu hartzaileak, ikuskatze mugatuaren aldeko txostena igorri dau.

Laugarrena: Aurrekontuaren zenbatekoa, 124.004,60 €koa da urte birako, BEZa barne.

Argudioak

Lehenengoa: Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzen dituen uztailaren 20ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2016 Foru Dekretuaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera "*Esparru-akordio jakin bat interesatzen zaien entitateek esparru-akordio horri berariaz atxikitzen zaizkiola komunikatu behar dute*"

Bigarrena: Orobat, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta BERMEOKO UDALAREN artean egindako hitzarmenaren arabera, BERMEOKO UDALAK jakinarazi behar du zer ondasun, obra edo zerbitzu eskuratzeko esparru akordiorik atxikitzen zaion eta atxikipen horrek esparru-akordioaren indarraldi osoaren iraupena edukiko duela.

Aurrekoa ikusirik, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak jakinarazi dio BERMEOKO UDALARI GAS NATURALAREN HORNIDURA 2018-2019 eperako lizitatzeko asmoa esparru-akordioaren prozedura bidez.



Erabagia

Goian aitatutakoa kontutan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: 124.004,60 euroko gastua baimentzea, Gas Naturala hornitzeko 2018-2019 eperako eta, indarreango udal aurrekontuaren 00600-92920-221.03.00 partidan zorduntzea.

BIGARRENA: Atxekitzea Bizkaiko Foru Zentralak hasitako GAS NATURALAREN HORNIDURARI atxikipen hitzarmenean eta Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzen dituen uztailaren 20ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 125/2016 Foru Dekretuan ezarritako baldintzen arabera.

HIRUGARRENA: Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratua adjudikatu eta kontratu eratorria sinatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak esparru-akordioa formalizatu ondoren eta, betiere, hark adierazitako epean.

LAUGARRENA: Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari erabagia jakinaraztea.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran dekretuaren barri emotea.

Bermeon, 2017ko urriaren 17an

ALKATEA

NIRE AURREAN
BEHIN-BEHINEKO
IDAZKARIA

Idurre Bideguren Gabantxo

Jurdana Uriarte Lejarraga

